

**MEDIKUNTZA ETA ERIZAINNTZA FAKULTATEKO TITULAZIOETAKO HAUTAZKO  
KREDITUEN AITORPENA**

UPV/EHUko arautegi orokorrak jasotzen duenez, kredituak aitortzeko eska daitezke unibertsitateko kultur eta kirol ekintzetan, elkartasuneko eta lankidetzako jardueretan eta ikasleen ordezkartzean aritzeagatik, gehienez ere ikasketa planeko 6 kreditu aitortzeko eska daiteke. 3 ECTS lor daitezke

<https://www.ehu.eus/eu/web/estudiosdegrado-graduakoikasketak/aitorpenak-baliozkotzeak-eta-homologazioak>

Medikuntza eta Erizaintza Fakultateak egiaztatu behar dituen jardueren kasuan, Akademia Antolakuntzako Batzordeak ezarriko du zein diren jarduera bakoitzean hautazko kredituak aitortzeko irizpideak. Irizpide horiek honelako alderdiak hartuko dituzte kontuan: eskatutako aurrez-aurrekotasun maila, jardueraren prestakuntzarako inplikazioa edo jardueraren ondorengo onura, jardueraren intentsitatea (etengabeko arreta edo arreta etena), etab. Osasun arloko jardueren kasuan, aurrez aurreko 15 ordu beharko dira *ECTS* kreditu bat aitortzea eskatzeko.

Irizpideak a priori ezar daitezke fakultatearen eta osasun zientzietako prestakuntza jardueren sustapenarekin lotutako erakundeen artean (lanbide elkargoak edo antzekoak, esaterako) erabakitako jardueretarako. Modu indibidualean ere ezar daitezke aldi behingo jardueretarako, fakultateko ikasleek antolatutako jarduerak lehenetsita. Jarduera horiek iragarri egino dira ikasleak bertaratu eta kredituak lor ditzaten.

**Kredituak aitortzea ikasleak eskatzeko prozedura**

Ikastegiak ezarritako epean, ikasleak nahi duen kreditu kopurua aitortzeko eskaera aurkeztuko du, dagozkion akreditazioak eta ziurtagiriak entregatuta.

**Kredituak aitortzea erakunde antolatzaileak eskatzeko prozedura**

Bi hilabete lehenago, ekitaldiaren antolatzaileek eskaera orria (I. eranskina) beteko dute dekanuari zuzenduta. Eskaera Akademia Antolakuntzako Batzordeak aztertu eta balioetsiko du. Batzorde horrek ezarriko du zenbat ECTS kreditu aitortu diren eta zer baldintza bete behar diren kredituak aitortzeko, lehen zehaztu bezala.





Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

MEDIKUNTZA  
ETA ERIZAINNTZA  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE MEDICINA  
Y ENFERMERÍA

---

Jardueraren laburpena (200 hitz, gehienez) (***Erantsi programa, halakorik bada***):

**Oharra:** Ekitaldiaren antolatzaileak arduratuko dira asistentzia kontrolaz. Asistentzia hori %85etik gorakoa izan behar da baliozko bertaratze ziurtagiri bat emateko hautazko kredituak aitortzeari begira. Asistentzia kontrolak ikastegira igorriko dira, baita parte hartzea egiaztatuta duten ikasleen zerrendak ere.

Data eta sinadura

Sin.: .....

UPV/EHUren MEDIKUNTZA ETA ERIZAINNTZA FAKULTATEKO **DEKANOARI**